

euskararen
donostia
patronatuaDonostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

zinea

- **Chihiroren bidaia**
Azaroaren 30ean,
17.00etan
Lugaritz Kultur Etxean

Azaroaren 30ean eta
abenduaren 1ean,
17:00etan
Principe zinematan

antzerkia

- **A, e, i, o, u
(haurrentzat)**
Deabru beltzak
Bokalak pertsonaia
bizidunak dira eta egun
batean bisita egiten
diete haurrei
Azaroaren 30ean,
18.00etan
Egia Kultur Etxean

- **Hau paraderoa!**
Elena Irureta, Eli
Elizondo, Aitzpea
Goenaga, Loli Astoreka
Abenduaren 12an,
19.30etan
Egia Kultur Etxean

- **Ku-ku aitona
erlojua (haurrentzat)**
Txotxongilo taldea
Abenduaren 14an,
18.00etan
Lugaritz Kultur Etxean

- **Txingurria, urrea eta
erregea**
Ipuin antzezpena
Abenduaren 15ean,
19.30etan
Altzako frontoian

musika

- **Fermin Muguruza,
Kuraia**
Gailu, Sorkun
Azaroaren 30ean,
19.00etan
Anoetako belodromoan

- **Olentzero begi gorria**
ETBko programaren
grabazioa
Abenduaren 6an,
Kursaal Auditorioan

WOLNEY MATTOS OLIVEIRA ZINEMA ZUZENDARIA



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

«Brasilgo
zinemak kalitate
ona du»

ZINEBIko nazioarteko lehiaketan parte-
hartzaile izatetik epaimahaikide izatera
igaro da Wolney Oliveira brasildarra.

Estibalitz Ezkerra | BILBO

Denbora batez dokumentala utzi eta fikzioan probatzea erabaki du Wolney Oliveirak (Brasil, 1960). Pozik dago hartu duen bideagatik, pozik gobernu berriaren eskutik Brasilgo zinemari datorkion etorkizunagatik.

■ **San Antonio de los Bañosko Zinema eskolako lehen belaunaldikoa zaitugu.**

Bai, eskola zabaldu zuten ikasle haietarik bat izatea ohorea han-

dia da niretzat. Garai hartatik oroitzen onak ditut. Brasiletik irtetzen nintzen lehen aldia zen hura, hizkuntza ez nuen ezagutzen, eskolan hiru kontinenteko ikasleak geunden —Afrika, Hego Amerika eta Asiakoak—. Hiru urterako joan nintzen, eta, azkenean, sei igaro nituen bertan. Ez bakarrik alde teknikitik, giza ikuspegitik ere biziki aberastu ninduen egonaldiak.

■ **Gainera, lizentziatzeko**

GOBERNU BERRIARI ESKARIA

«Diru laguntzen dezentralizazioak on egingo dio Brasil osoari: errealizadore berriak agertzeaz gain, ikuspegi berriak ekarriko baititu»

osatu zenuen lanarekin ZINEBIko Urrezko Mikeldia irabazi zenuen.

Bilbon ez ezik, La Habanan eta Brasilen saritu zuten dokumental hura. Sorpresa handia izan zen niretzat. Ez nuen uste lanak hainbesteko arrakasta edukiko zuenik. *El invasor marciano* zuen izena, eta San Antonio de los Bañosko gazte zinema zale batzuen historia kontatzen zuen. 50-60ko hamarkada bitartean, talde horrek zinema amateurra egin zuen 16 mm-tan. Haiek ezagutzeko aukera eduki nuen, beren gorabeherak sekulako aurkikuntza iruditu zitzaizkidan, eta atzera begirako bat osa nezakeela pentsatu nuen. Orain, gai hura oinarritzat harturik, fikziozko film luze bat prestatzen ari naiz. 2004ean hasiko gara grabaketa lanekin.

■ **Eta berriro zinema eskolarekin egiten dugu topo. Izan ere, zure irakasle izandako Tito Ameijeirasek ekoitziko du filma.**

Hala da, bai. Funtsean, eskolako ikasle ohiek osaturiko lan taldea izango da.

■ **Hainbeste markatzen du San Antonioko giroak?**

Ez dakizu zenbat! Nik familia bat daukat Kuban. Lagun handiak ditut bertan, eta beti saiatu naiz haiekin harremana mantentzen. Gainera, elkarrekin lan egiteko aukera badugu, hobeto. Hain zuzen, urtarrean eskolara itzultzeko asmoa daukat. Ikasleei zenbait klase emateko eskatu didate, eta, bide batez, Julio Garcia Espinosa zuzendariari eskola nire filmaren koproduttore izateko eskatuko diot. Sekulako poza emango lidake horrek.

■ **Baina Brasilek eramango du ekoizpenaren pisua. Zer egoera du zinemak bertan?**

Gobernu berriak gauzak bere tokian jartzea espero dugu, orain arte nahiko gorabeheratsua izan baita zinema industriaren ibilbidea. Are gehiago, Brasilgo zinemaren historia atalka egituraturik dagoela esan dezakegu; ez dauka jarraitkortasunik. Herrialdea ekonomikoki eta politikoki ondo da-

goanean, zinema ezin hobeto doa. Adibidez, 80 urte amaiera arte ondo bizi ginen. Salmentaz eta banaketaz arduratzen zen Imbrafiumi geneukan —Estatuko enpresa berau—, urtean 80-120 film bitartean ekoizten ziren. Baina Fernando Color de Meloren gobernuak etorri zen...

■ **Eta?**

Bada hondamendia gertatu zen. Imbrafiumirekin amaitu zuen, eta urtean 3-5 film bakarrik ekoiztera igaro ginen. 1995ean zinema politika berriak arnasa ekarri zion zinegintzari. Bost urte geroago, Brasilgo Zinema Kongresua eratu zen —gaur egun, Brasilen den ikus-entzunezko organo gorena—, eta, Porto Alegren egin zen hirugarren bileran, 72 puntuko txostena aurkeztu zitzaion gobernuari. Presio pixka bat eginez, Zinemaren Agentzia Nazionala (ANCINE) sortzea lortu genuen, aurrerantzean Imbrafiumiren rola beteko duena. Orain bakarrik falta da gobernuak dirulaguntzen politika dezentralizatzea.

■ **Urte hauetan nolako izan da baliabideen kudeaketa?**

Erabat partziala. Gobernuak kulturara —zinemara batik bat— bideratzen duen diruaren % 90 Rio de Janeiron eta Sao Paulon metaturik egon da. Beraz, normala da ekoizpen gehienak handik ateratzea, ezta? Urtarrean gobernu aldaketa gertatuko da, eta, beraz, badugu pozik egoteko arrazoia. Lula da Silva kulturarekin eta gizartearekin oso konprometiturik dagoen pertsona da, eta, gainera, bere taldeak ondo daki zinema subiranotasun nazionala indartzeko ezinbestekoa dela. Dezentralizazioa gertatzen bada, Brasil osoari on egingo dio, errealizadore berriak agertzeko aukera emateaz gain ikuspegi berriak ekarriko baititu.

■ **Kalitate aldetik, zelan da bil Brasilgo zinemak?**

Kalitate ona dago, eta horren adibide da azken hiru urteetan, jarraian, Brasilgo lanen bat Oscar sarietarako izendaturik egon izana. Noizbait kalitateak behera egin badu, baliabide faltagatik izan da.

XX. MENDEKO POESIA KAIERAK

Koldo Izagirrek antologatuak: Orixe, X. Lizardi, Lauaxeta, J. Zaitegi, S. Mitxelena, X. Iratzeder, N. Etxaniz, J. Mirande, J.M. Lekuona, G. Aresti, Erdozaintzi-Etxart, B. Gandiaga, J. Azurmendi, M. Lasa, J.A. Irigaray, A. Lasa, J.A. Artze, A. Urretabizkaia, B. Atxaga, J.M. Irigoien, R. Egiguren, J. Sarrionandia, J.L. Otamendi, T. Irastortza, X. Montoia, J.A. Arrieta, I. Borda, J. Muñoz, J.K. Igerabide, O. Nabarro, P. Perurena, I. Aranbarri, F. Juaristi, J. Arano, L. Anselmi, K. Linazasoro, L. Berrizbeitia, P. Aristi, J. Olasagarre, R. Arregi Diaz de Heredia (Susa literatura argitaletxea)